



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## **UDALAREN OSOKO BILKURA** **2008ko urtarrilaren 31ko ohiko bilera**

### **BERTARATU DIRENAK:**

#### **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

#### **ZINEGOTZIAK**

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CUIEL jn.  
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.  
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.  
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.  
EAJ-PNV.- M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ and.  
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.  
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.  
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA jn.  
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.  
PSE-EE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.  
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.  
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.  
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.  
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.  
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.  
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.  
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.  
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.  
EB-B.- DANIEL HERRERA TORRECILLA jn.  
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

#### **EUSKARA ITZULTZAILEA**

IDOIA NOBLE and.

#### **KONTU-HARTZAILEA**

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

#### **IDAZKARIA**

M<sup>a</sup> VICTORIA ERKIAGA ARANGÜENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta zortziko urtarrilaren hogeita hamaikako arratsaldeko zazpiak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M<sup>a</sup> VICTORIA ERKIAGA ARANGÜENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

## **I.- ERABAKITZEKOAK**

**1.- 2007-11-29AN EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA ONESTEA:** Izenburuan aipatutako bilerako akta onetsi gabe zegoela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak **aho batez onetsi du** bi mila eta zazpiko azaroaren hogeita bederatzian egindako ohiko bileraren akta.

**2.- LANDABARRI PASEALEKUKO HERRI BIDEAN DAGOEN SOBERAKIN BATEN ERABILERA ARAUBIDEA:** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2007ko azaroaren 27ko 180. zenbakidun irizpenaren



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Landabari pasealekuko 5 eta 17 zenbakien artean dagoen lur azpiko pasabidearen ezaugarrien berri eman da. Gaur egun, pasabide hori jabari eta erabilera publikoko leku batera irteten da, 5 zk.ko eraikinaren inguruetatik lur azpiko pasabidea eta Txikia etorbidea lotzen dituzten arrapala eta eskailerak ere hartara irteten direla. Halaber, Artazako oinezkoentzako pasabidearen proiektuaren aurreikuspenen berri eman da. Herri Lan Sailak proiektu hori idatzi du jada eta gaur egun eskaintzak aurkeztu zain dago. Proiektuak badakar dagoen kalearekiko paraleloa den oinezkoentzako pasabide bat eraikitzea eta galtzadaerdia eta espaloia mugitzea. Mugimendu horren ondorioz, eskailerak eta arrapala eraitsi behar dira. Horrek eta lur azpiko pasabidea desegiteak funtzionaltasuna kentzen diote dagoen espazio libreari. Hori dela eta, 5 zk.ko eraikina (gaur egun eraikitzen ari den hotela) inguratzen duten erabilera publikoko espazio libreak erabilera- eta mantentze-mailan hotelari lotzea proposatu da. Horrela, erabilgarritasun publikorik ez duten espazioak garbitu eta zaintzeak dakarren gastua saihestuko litzateke. Jarraitu beharreko formula 689 m<sup>2</sup>-ko azaleraren gainean erabilera eta mantentze-lan pribatuak baimentzea da, Udalaren eta hotelaren titularraren arteko hitzarmenaren bidez. Hitzarmen hori denboraldi zehatz bat igaro ondoren berrikusi ahal izango da.

Alde horretatik, Udal Bulego Teknikoak txostena egin zuen 2007-11-20an, honakoa adierazita:

“Izan ere, lehengo Udalaren Arau Subsidiarioen 12. aldea berriro zatitzeko proiektutik sortutako espazio hori jabari eta erabilera publikokoa izan zen bere garaian. Dena den, orain ez da interesgarria Udalerako, hotela izango den eraikina eta etorkizunean Avanzada errepidearen gaineko pasabidea eraikiko direnez, hondar espazio bihurtuko baita.

Okerra da erabilera publikorako interesgarria ez den espazioa zaintzen jarraitzea. Mota horretako hipotesiak ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onetsitako Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 6. eta 7. artikuluetan arautu dira. Horietan espazio horiek “bide publikoaren soberako lursail”tzat jotzen dira, besterendu eta alboko jabeei eman ahal zaizkiela (115. artikulua).

Nolanahi ere, epe ertain eta luzerako hirigintza dinamika kontuan hartuta, ez omen da interesgarria lurraren jabetza eskualdatzea, baina bai bere erabilera.

Horretarako, kalifikazio juridikoa aldatzeko espedientea egin behar da, erabilera publikorik gabe, ondare erabilera har dezan (8. artikulua). Ondoren, ondasunen salmenta-balioaren %6tik beherakoa ez den prezioan alokatuko da. Hirigintza-aprobetxamendua amaituta daukan lurra dela kontuan hartuta, 12,00 euro/m<sup>2</sup>-ko prezioan baloratu da: 689 m<sup>2</sup> x 12,00 euro/m<sup>2</sup> = 8.268,00 euro. Beraz, alokairua kopuru horren urteko %6koa izango da (496,08 euro).

Logikoa denez, alokairua ondoriorik gabe geratuko litzateke, etorkizuneko hirigintza eragiketek Udala behartuko balute lurraren erabilera berreskuratzera.”

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** Udalaren osoko bilkurak honako jarduerak onestea komeni dela iritzi du:

- Udalaren Arau Subsidiarioen 12. aldea Berriro Zatitzeko Proiektuaren arabera, hasieran jabari publikorako erabili ziren 689 m<sup>2</sup>-en kalifikazio juridikoa aldatzen duen espedientea bideratzen hastea, ondare ondasun bihurtzeko.
- Horri buruzko iragarkia argitaratzea BAOn, jendaurrean azaltzeko epea betetzeko ondoretarako.
- Lur horren kalifikazio juridikoa aldatu eta gero, horren alokairua eskaintzea alboan eraikitzen ari den hotelaren titularrari. Alokairuaren zenbatekoa 496,08 eurokoa



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

izango da urtean, hamar urteko epean. Dena den, edozein motatako hirigintza kudeaketa egiteko lur hori erabili behar bada, haren erabilera berehala itzuliko da, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Irizpena Alderdi Popularreko ordezkariaren abstentzioa gorabehera hartu zen. Izan ere, aurreko hainbat alditan Alderdi Popularra Avanzada errepidearen gainean pasabideak eraikitzearen aurka agertu da eta, alternatiba gisa, komunikabide hori bere hiri tarte osoan estaltzea proposatu du.

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, PPko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Gai horri dagokionez, Avanzada errepidean eraikitzen ari den hotela kudeatuko duen enpresari erabilera lagatzeko aurkeztu den irtenbidea baliozko irtenbidea iruditzen zaiela eta horren kontra ezer ez daukatela esan du. Baina ez daude ados irtenbidearen jatorriarekin edo zergatiarekin; izan ere, jatorri edo zergati horren zati bat Pinosoloko etorkizuneko pasabidean oinarritzen da eta pasabide horrek libre utziko duen lekuaren zati bat hotelari erabiltzeko lagako zaiona da. Alde horretatik, bere alderdiak beti pasabide horien (Mendibileko pasabidea, Pinosolokoa) aurkako jarrera erakutsi duela esan du eta uste dute hobe dela Udalak ahaleginak egitea edo bere baliabideak erabiltzea Avanzada errepidea lurperatzeko, beren iritziz hori onena baita auzokoentzat. Hori dela-eta, lekua lagatzeko ekintza etorkizunean eraikiko den pasabide horretatik ondorioztatu denez, ez dira ekintza horren alde agertuko, hau da, ez diote aldeko botoa emango. Gauzak horrela, abstenitu egingo dira, Hirigintza Batzordean azaldu zuten bezala, Pinosoloko etorkizuneko pasabidearen proiektutik ondorioztatuko kontua izateagatik.

**Jesús Bilbao Curiel jaunak, EAJ-PNVko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Alde batetik, aurretik esan denarekin guztiz ados daudela esan du. Uste dute hotelari lur-zati txiki horren erabilera laga behar zaiola eta, PP taldearen iritzia errespetatuta ere, berak esan nahi du bere ustez aurrekoak diren gauzak aurkezten dituela eztabaidara. Bere ustez, hori ez da egokia, hau da, gaiari dagoen bezala egonda aurre egin eta horixe eztabaidatu behar da. Eta aurrerago gaian sakonduko dute, baina iruzkina onartzen duela adierazi du.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate-udalburu jaunak** honakoa adierazi du:

Badirudi batzuetan ikuspuntua nolabait galtzen dela eta, gehienbat gai bakoitzaren letra txikian eta barnetasunetan sartzen denean, batzuetan Alkatetzan ere galtzen da ikuspuntua, ezinezkoa delako beti gai horiei adi egon. Hala ere, uste du kalifikazio juridikoen aldaketei buruz hitz egin zezaketela eta pasabidean baino neurri handiagoan Avanzada baino beherago dagoen azalera batean dauden motibazioetan arreta handiagoa jar zezaketela. Izan ere, hor bazegoen plazaratxo bat, leku nahiko marjinalen zegoena eta, horren ondorioz, ez zitzaion erabilera handirik ematen. Egia esan, oso zaila zen plaza txiki hori zaintzea, azken batean, gune zehatz bateko atzealdea baitzen. Baina hotelaren proiektua gauzatzen denetik, bertan logela batzuk, besteak beste, egongo direla kontuan hartuta, logikoagoa omen da gune pribatuagoa sortzea. Horregaitik agertu dira aldaketak, batez ere.

Jarraian, gaztelaniaz hitz egin du. Avanzadari dagokionez, bere taldeak inoiz aktak sakratutzat jo ez dituela esan du, uste baitu oso gutxitan berrikusi dutela akta baten hitzez hitzekotasuna, esan zenaren eta esan gabe utzi zenaren artean desadostasun handia egon ezean. Baina Avanzadari buruz bai kezkatu dela, gaur egun betetzen omen ez ziren udal akordioak aipatzen ari zirelako; izan ere, 1982., 1983. eta 1998. urteez hitz egiten zen eta horregatik, hemeroteka erabili dute, Udalaren aurreko osoko bilkurek hartutako erabakiak



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

berreskuratuta. Berak uste du beharrezkoa dela benetako errealitatea izan den moduan islatzea eta besteei gogorarazi nahi die norberaren esku dagoela jarrera aldatzeko eskubidea, norberak hori egiteko eskubide osoa duela. Dena den, Avanzadari dagokionez, bitan banatu ondoren, 1998ko erabakiak Aldundiari aurkeztu beharreko irtenbidea hartzeko baldintza agiria ituntzeko izan ziren. Erabaki hori talde guztien aho batez hartu zen. Horrez gain, badago bigarren erabaki bat, 1998koa ere dena, eta, horren bidez, Dair-i lan hori esleitu zitzaion aho batez. Amaitzeko, esan behar da ez zela Udalaren osoko bilkuraren erabakia edo orain arte, behintzat, ez dela horrelakotzat jo. Egia esan, Hirigintza Batzordearen irizpena zen, aho batez hartutakoa, horren bidez Mendibileko eta Artazako bi pasabideen eta lubakiak estaltzeko irtenbidearen jakitun geratu, horiekin ados egon eta horiei oniritzia eman zietela. Gaur egun esan daiteke ezetz, historikoki pasabidearen aurka egon dela edo pasabidea nahi ez dela. Baina benetakoa eta egia dena Udalean islatutakoa da, hau da, hasierako planteamenduak, horiek antolatzeko oinarri hartu denak, 2005eko hitzarmena sorrarazi zuenak eta talde guztiek udaletxean 1999ko maiatzean aho batez onetsi zutenak, bi pasabideak (orain eraikitzen ari dena eta lubakiei lotutakoa) barne hartzen zituen. Hori horrelakoa izanda, besteei gogorarazi nahi izan diela adierazi du.

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, PPko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Berak Avanzadari buruzko eztabaida ez dela ulertzen duela esan du; hori dela eta, egokia iruditu zaio Euzko Alderdi Jeltzaleko bozeramaileak esandakoa, hori eztabaidaren gaia ez zela kontuan hartuta. Argitu nahi du berak Avanzada aipatu duela, arlo horretan hartzen duen jarrera azaltzeko beharrezkoa zelako. Alkate jaunak aztergaiari ez zegokion eztabaida piztu duela esan du eta, bere ustez, ez du asmatu. Nolanahi ere, adierazi nahi du bere taldeak Leioako orainaldia eta etorkizuna zein Leioako herritarrentzat onena dena hartzen dituela kontuan, bai iragana, bai orain dela hamar edo hogeituro urteko aktak alde batera utzita. Une bakoitzean orain eta etorkizunean udalerrirako zer izango den onena pentsatzen dute eta, alde horretatik, bere taldeak arlo horretan daukan jarrera argia dela esan du.

Amaitzeko, adierazi du bere taldeak alkate jaunari gomendatu nahi diola, aktak berrikusi beharrean, hobe duela udalerririk benetan behar duenari edo herritarrentzat onena denari bueltak ematea.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate-udalburu jaunak** honakoa adierazi du:

PPko bozeramaileari adierazi dio, oker ez badago, Barne Araubideko Batzordearen bilera batean min handia sentitu zuela, garai hartan Alderdi Sozialistako bozeramailea zen José Manuel Toledo jaunak zuzenketak nola aurkeztu aditzera eman ziolako; horren ondorioz, PPko bozeramailea haserretu egin zen, bere lana nola egin behar zuen esatea onartu ez baitzion; dena den, horixe bera da orain berak egiten duena. Baina bera haserretuko ez dela esan du, nahiz eta aurreko batean eta arrazoi berdinetatik bestea haserretu zela gogoratu, bere senetatik erabat aterata zegoela.

Berak Avanzadari buruzko eztabaida piztu ez duela esan du: PPko bozeramailea izan da Avanzadari lotutako gai baten ondorioz, aztergai horretan abstenitu egingo dela adierazi duena. Eta berak gaia mahaigaineratzen badu, ulertu behar du besteek erantzuteko eskubidea daukatela. Gauzak horrela, alde aurretik konponbide dotorea eman dio eta edonork iritzia alda dezakeela esan dio; ez du besterik esan. Dena den, jarrera historikoa zein izan den eta zenbait gauza aldeko zenbat botorekin onetsi ziren gogorarazi nahi izan du, besterik ez. Baina norberaren historia azaletik gogorarazteak mintzen badu, hori norberaren arazoa da eta, hortik aurrera, norberak bere iritzia nahi beste alditan aldatzeko eskubidea dauka. Dena den, gaur esan da, Avanzadako pasabide hori bere garaian proposatu zenean, guztien adostasuna eskuratu zela. Hori adierazi du, Udalaren osoko bilkuraren aurreko bileran esan zuen bezala, orain ere



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

pasabidearen aurka daudela aipatu dutelako, bere garaian proiektuaren alde agertu baziren ere. Hala ere, ez dio PPri, ezta PSOERI ere, leporatu nahi, zenbait jardueraren atzean daudenei baizik; denek daukate horren berri eta ez du publizitaterik egin nahi bilera honetan. Epaitu gabe, gogorarazi nahi izan duela adierazi du.

### BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamazazpi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkarienak, PSE-EEko bost zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak; hiru abstentzio ere egon dira, PP taldeko hiru zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, gehiengoaren aldeko botoaz **erabaki du** Landabari pasealekuko herri bidean dagoen soberakin baten erabilera araubidea onestea, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

**3.- BBK-KO BATZAR NAGUSIRAKO ORDEZKARIA IZENDATZEA:** Barne Araubideko Informazio Batzordearen 2008ko urtarrilaren 23ko 6. zenbakidun irizpenearen berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Bere garaian, Batzorde honek jarraian hitzez hitz idatzi den irizpena onetsi zuen:

*2005-12-22an idazkia bidali zuen BBK-k (sarrera-erregistroko zk.: 8417/05). Bertan adierazi zuen ordezkari titularra eta ordezkoa izendatu behar direla erakunde horretako Batzar Nagusirako, bertako kide batzuk berritu baitira. Leioako Udalari dagokionez, bere garaian osoko bilkuraren erabakiaren bitartez izendatu zen Javier Bidea Molinillo alkateordeari eragiten dio aldaketak.*

*Gauzak horrela, Alkatetza-Udalburutzak, aipatutako berrikuntza egiteko, titularra berriro ere Javier Bidea Molinillo jauna eta ordezkoa Bea Resa Bardeci izatea proposatu du.*

*Gaia bozkatu eta honakoa izan da emaitza: EAJ-PNVko Guillermo Mateo Kareaga jaunak, Javier Bidea Molinillo jaunak, Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak eta Bea Resa Bardeci andreak eta EAKo Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak aldeko botoa eman dute; PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna abstenitu egin da, bere garaian adierazi zuen bezala, bere ustez, oposizioko taldeek ordezkartzaren bat izan beharko luketelako horrelako erakundeetan; EB-BERDEAK taldeko Rubén Belandia Fradejas jauna ere abstenitu egin da eta PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak eta Nieves Hurtado Urtiaga andreak kontrako boto partikularra eman dute. Ondorioz, **Barne Araubideko Informazio Batzordeak** onetsi egin du Alkatetzaren proposamena, Javier Bidea Molinillo jauna titularra eta Bea Resa Bardeci andrea ordezkoa izateko.*

BBK-k idazkia bidali du (sarrera-erregistroko zk.: 333/08) eta bertan adierazi du udal ordezkari berria izendatu behar dela, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak kargua utzi baitu. Javier Bidea Molinillo jaunak ordeztzen jarraituko du, 2010ko martxoaren 27ra arte.

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak** aldeko irizpena eman dio Eneko Arruebarrena Elizondo jauna titular eta Daniel Herrera Torrecilla jauna ordezkari izendatzeari. Bozketan PSE-EE-PSOeko eta PPko ordezkariak abstenitu egin dira.

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, PPko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

BBK-ko Batzar Nagusirako proposatu diren ordezkariak dagokienez, Batzordearen bileran beraiek jada abstenitu egingo zirela adierazi zutela esan du. Izan ere, proposatutako ordezkariak alkate jauna (titularra) eta Ezker Batuko bozeramailea (ordezkaria) dira, hau da, Gobernu Taldea osatzen duten alderdietako kideak. Hori beren proposamena ez zenez,



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

abstenitu egin ziren. Egia da, Batzordearen bileran gogoratu bezala, legegintzaldi honetan zerbait berria egin dela: udalean ordezkariak dituzten alderdi guztiek beste ordezkariaren bat daukate udalaz gaindiko organoren batean. Beren kasuan, adibidez, ordezkariak daukate Bilbao Metr poli 30 elkartean, eta horixe da beren lehenengo aldia, orain arte ez baita horrela jokatu. Bere taldeak positibotzat jo zuen, alderdi guztiek udalaz gaindiko organoetan ordezkariak izatea ona baita bere ustez, batez ere alderdiek gehiengo osoa ez daukatela kontuan hartuta. Alde horretatik, Udalaren osoko bilkurak uztailan egindako bileran, organo ezberdinetako ordezkariak bozkatu zen eta bere taldeak proposatutako izendapen guztiei aldeko botoa eman zien. Uste dute kasu hau uztailan onetsi ziren izendapenen hedadura dela eta, horren ondorioz, aldeko botoa emango diote, beren ustez logikoa baita hori egitea.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate-udalburu jaunak** honakoa adierazi du:

Eskerrak eman dizkio Alderdi Popularrari haren jarreragatik eta kideei adierazi die jarrera horrek ohoratzen dituela. PPko bozeramaileari adierazi dio, zintzoa izanda, logika politikoaren barnean aurkako botoa eman izana ulertuko zukeela, baina aldeko botoa emateak ohoratzen ditu eta zerbaitek pertsona bat ohoratzen duenean, aitortu egin behar da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** BBK-ko Batzar Nagusirako Eneko Arruebarrena Elizondo jauna ordezkari titular eta Daniel Herrera Torrecilla jauna ordezkari izendatzea onestea, Barne Araubideko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

#### **4.- JOS  MANUEL TOLEDO CAÑAMERO JAUNAK ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA:**

Barne Araubideko Informazio Batzordearen 2008ko urtarrilaren 23ko 9. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

PSE-EE-PSOE taldeko kandidaturako zinegotzi horrek idazkia aurkeztu du (sarrera-erregistroko zk.: 499/08) eta horren bitartez uko egin dio udal honetako zinegotzi karguari; era berean, ukoa onartzeko eta legearen arabera behar diren izapideak egiteko eskatu du.

Batzordeari onetsi den hurrengo irizpen-proposamena aurkeztu zaio, Batzordeak proposamen horren inguruko erabakia har dezan:

**Barne Araubideko Informazio Batzordea** uko egin izanaren jakinaren gainean geratu da. Horrela bada, horren berri eman beharko da udalaren osoko bilkuran, egingo duen hurrengo batzarrean. Ondoren, zinegotzi berria izendatzeko tramiteak egin beharko dira Hauteskunde Batzorde Zentralean, Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 1986ko azaroaren 29ko araudiaren 9.4 artikuluan, Hauteskunde Araudi Nagusiarri buruzko 1984ko ekainaren 19ko Lege Organikoaren 182. artikuluan eta Hauteskunde Batzorde Zentralaren 2003ko uztailaren 10eko Arauetan xedatutakoa aplikatuz.

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, PPko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Jos  Manuel Toledo jauna Udalaren osoko bilkuraren bileran ez badago ere, bere udal talde politikoak jakinarazi nahi dio oso pozgarria izan dela berarekin batera udalean hainbat urtetan lan egin izana eta, desadostasun eta alde politiko logikoak alde batera utzita, une horretatik aurrera haren bizitza pertsonala eta profesionala ezin hobea izan dadin opa diote.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Aurrez aurre opa izateko aukera izatea espero duten arren, gustatuko litzaioke, Alderdi Popularreko udal taldeko kide guztien partez, desio hori helarazi eta onena opa izatea.

**Alfonso López Arevalillo jaunak, PSE-EEko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Alderdi Sozialistako udal taldeak hautatutako bozeramaile berria den aldetik, bere burua aurkeztu nahi duela adierazi du. Eskerrak eman ditu PPko bozeramaileak bere taldearen izenean esan duenagatik eta, José Manuel Toledo jaunak aurkeztu duen ukoari dagokionez, bere taldeak zerbait adierazi nahi duela esan du: hasteko, emandako arrazoiak ulertzen dituztela esan du. Era berean, beren elkartasuna adierazi nahi diote, politika herritarren desioak gauzaten dituen tresna gisa ulertzeko eta indar politiko guztien artean “zubiak eraikitze” orduan udaleko erreferentzia izan den pertsona horri; beti jarrera eta antze bikainak erakutsi ditu, bere udal taldean itzala utzita; gauzak horrela, haren bideari jarraitzen saiatuko dira, garaiz kanpoko probintziakeria eta gorroto gaindiezinei dagozkien borroka antzuak eta alferreko liskarrak –berak esaten zuen moduan- saihestuta. Beraz, eta amaitzeko, “*umezurtz*” geratu diren arren, Leioaren eta auzoko guztien alde lan egiteko helarazi zien ilusioa oinarri hartuta etapa berri horri aurre egingo dioten lagunen errespetua, adiskidetasuna, esker ona, elkartasuna eta maitasuna adierazi nahi ditu berriro.

**Jesús Bilbao Curiel jaunak, EAJ-PNVko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Bere taldeak José Manueli onena opa nahi diola esan du, elkarrizketarekiko jarrera izan duela, gizon adeitsua, gizon azkarra eta ona izan dela edo, behintzat, hori iruditzen zaiela guztiei. Horregatik guztiagatik, esker ona adierazi nahi diote, bere lanagatik, elkarrekin egin duten lanagatik eta, Xabier Olabarrietaren bide berari jarraituta, guztiak benetan ari direla uste du, gainera, pena hartu baitute guztiek Jose Manuelek hartu duen erabakiarekin. Edonola ere, onena opa diote bere proiektu profesionaletarako, bere bizitza pertsonalerako; onena opa nahi diote, gainera, bozeramaile gisa hura ordezkatzeko duenari eta haren aurrekoak izandako jarrera irekia izan dezala opa diote, baita ezagutzen ez duten zinegotzi berriari ere.

**Daniel Herrera Torrecilla jaunak, EB-Bko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Esan duenez, eurek aipatu nahi dute Jose Manuelek batera aritutako denbora laburrean lotura pertsonal eta lankidetzaz lotura garrantzitsuak sortu zirela eta, bere ustez, ez dira badoalako hari buruz ongi hitz egiten duten horietakoak, hemen zegoenean ere ongi hitz egiten baikenuen berari buruz eta hori da garrantzitsuena eta guztiok horretarako irrikaz gaudela uste dudalako eta edonorentzako egingo lukeelako eta Jose Manuelentzako, bereziki, gehiago, nolabait, maila politikoan, profesionalean eta pertsonalean ahalik eta ondoen joan dakion nahi du. Bere ustez, pena izan da asko eman eta ematen duelako, baina erabakiak beti pertsona bakoitzarentzat onena izango dela pentsatzen hartzen dira eta, mexikarrek dioten bezala, “*que le vaya bonito*”.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate-udalburu jaunak** honako hau adierazi du:

Aipatu duenez, agurraren unean badirudi ohikoena dela, nolabait, adiskidetzeko hitzaldiak eta erabat laudagarriak egiten dituztela dagokion pertsonari dagokionez. Adierazi duenez, José Antonio Agirrek Batzar Nagusietan egin zuen hitzaldi batean esan zuen ez dela bere semearen gaixotasunaz hitz egiten ari den amarena baino hitzaldi sentituagorik eta hori esan zuen prestatu gabeko esku-hartzea izan zuelako, sentitzen ari zen gai baten gainean zer esan behar zuen esango zion paperik gabe eta, kasu honetan, egia da udal-bizitzak irentsi egiten zaituela eta osoko bilkuraren bilerara heldu baino ordu laurden lehenago ohartu dela gaur dela José Manuelen uko-egitea eta, bistakoa denez, ez duela idatziz ezertxo ere prestatu eta, haren ustez, gainera, hobe izan da ez ezer idatzi izana. Eta ez du nahi hitz horiek ohiko laudorio



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

pozoitu gisa hartzea, haren gaineko gauza onak esango baititu, kontua ez da horretan nolabaiteko arrazoiren bat bilatzea bera hemen ez dagoelako. Formalena litzateke paperean idatziz jasotzea Jose Manuelek emandako zerbitzuak eskertzeko udal hitzarmen batean, hori da formalena eta hori da, gainera, idatziz jasota egongo dena gerorako, baina hari zerbitzuak eskertzea baino zerbait gehiago gelditu beharko litzaioke.

Berak esan du Jesús Bilbaok Euzko Alderdi Jeltzalearen izenean hitz egin duela eta berak, alderdi beraren izenean, Udalaren izenean hitz egin duela eta Udala esan duenean Udalbatzaz ari dela eta hori esan duela, gainera, badakielako hori hala dela, hori helarazi zaiolako, Udaleko langile eskoren izenean ari dela hizketan eta berak ez du egingo Alderdi Sozialistari dagokion epaiketa, baina, bere iritziz, Jose Manuel joatea Udal honentzat, eta Leioarentzat ere, galera izan dela eta, lehen adierazi duen moduan, ez da ausartzen esatera Alderdi Sozialistarentzat galera denik, baina, bere ustez, une bateko galera izan daitekeena baliteke gero garaipena izatea, hau da, galera hori ordezkatzeta eta, berari ez bazegokion ere hori esatea, esan egin du eta, bere ustez, Alderdi Sozialistarentzat galera izango da, eta, gainera Leioarentzat galera izango da eta galera handia gainera, eta Udal honentzat ere bai.

Aipatu du Jose Manuel eta bera Udal honetara elkarrekin sartu zirela duela zortzi urte, ez zutela aurretik elkar ezagutzen eta jarrera desberdinak baina antzekoak egokitu zitzaizkiela eta, egia esan, berehala enpatizatu zutela eta bazela nolabaiteko elkarrekiko sentimendu bat eta mirespena. Jose Manueli buruz esan dezakeen gauza biribilena berekin akordioak lortzea oso erraza dela aipatu du eta zailena harekin desadostasunak izatea zela, nahiz eta bazituzten eta zenbaitetan desadostasunak izatea egokitzen zitzaien, baina oso zaila zela Jose Manuelek desadostasunak izatea.

Aipatu du gizon handia izan dela eta dela, bai politikari dagokionez, bai gizaki gisa eta Leioako Udal politika gauza bera helburu duten pertsonen arteko zerbait bihurtu zuela, herritarren arteko ongizatea helburu zuten pertsonen arteko zerbait, apainduretatik eta areto-gerretatik ihes eginez eta batek florete bat eta besteak pistola bat aukeratu izatetik ihes. Azkenik, adierazi du politika arloan gizon handia dela eta, batik bat, gizaki gisa.

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak José Manuel Toledo Cañamero jaunak zinegotzi karguari uko egin diola **jakin du** eta, beraz, Hauteskunde Batzorde Zentralari horren berri ematea erabaki du, hutsune hori beteko duen beste zinegotzi bat izenda dezan. PSE-EEren kandidaturako ordenari jarraituz, Juan Carlos Martínez Llamazares jauna izendatu beharko litzateke.

## **II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA**

**5.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK 2007-12-22tik 2008-01-25era.** Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## 6.- PRESAZKO MOZIOAK:

### ALDERDI POPULARRAK AURKEZTU DUEN LEHENENGO MOZIOA, LAMIAKOKO PADURA ETA LOKATZETAN ITSAS HEGAZTIEN BEHATOKIA ETA BEHAKETA ETA INFORMAZIO GUNEAK SORTZEARI BURUZKOA:

**XABIER OLABARRIETA ARNAIZ** jaunak, **LEIOAKO UDALEKO ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAREN BOZERAMAILEAK** honako mozioa aurkeztu du Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 97.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkura honetan eztabaidatzeko:

#### **MOZIOA**

Lamiakoko padura eta lokatzetan itsas hegaztien behatokia eta behaketa eta informazio guneak sortzeari buruzkoa.

Gure begien aurrean, erabat urbanizatuta dauden eta herritarren lana, ibilaldiak eta bizilekua hartzen dituzten guneeetan, lotu gabeko animalien enklabe txikiak daude, batzuetan inor konturatu gabe han daudenak. Dena den, horiek ezagutu eta gozatzeko aberastasun handia ekar lezake gure gizarterako.

Lamiakoko (Leioa) padura eta lokatzetan eta Bilboko itsasadarreko Abra badiako beste gune gutxi batzuetan, hegaztien 100 espezie finko eta migratzailek atsedean hartu, bazkatu eta normaltasunez bizi dira egunero. Ahateak, pelikanoak, beltxargak, hainbat kaio mota, ubarroiak eta bestelako txoriak dira, gure hiriguneetatik hurbil biodibertsitate handia egotea dakartenak.

Nerbioi itsasadarra Kantauri itsasoko migrazio-ardatz nagusia izateak –hainbat aldaketa egon badira ere- azaldu egiten du hegabera, itsas mika, korrejimo eta kurlinten (espezie horietako batzuk galzorian daudela) migrazio-bideek Abra topagune izaten jarraitzea. Aberastasun hori gozatu, herritarren ingurumen kontzientzia sortu eta natur baliabidea denari balioa emateko, erakundeen ekintza irmoa behar da.

Ezin da izan gugandik hurbil hain ikuskizun biologiko ederrik izan eta lekurik egokienetan behaketa gunerik ez egotea, edozein herritarrek ikuskizuna goza dezan.

**ONDORIOZ, ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAK HONAKO ERABAKIAK BIHURTU DIZKIO OSOKO BILKURARI, EZTABAIDATU ETA ONETS DITZAN:**

1. Leioako Udalak Foru Aldundiari eskatu nahi dio, eragindako administrazio guztiak ados egonda eta Lamiakoko Ur Zikinen Araztegia instalatzeko proiektuarekin bat etorrita, Lamiakoko padura eta lokatzetan itsas hegaztien behatokia eta behaketa eta informazio guneak sortzea sustatzeko.

2. Halaber, Leioako Udalak Foru Aldundiari eskatu nahi dio hegaztien atsedean eta bazka gune hori babestu eta gordetzeko neurriak sustatzeko.

Leioan, 2008ko urtarrilaren 31n.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, PPko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Aipatu du bere taldeak presazko bi mozio aurkeztu dituela. Bat Hirigintza Batzordean aurkeztu dutela eta Bizkaiko Foru Aldundiari hegaztien behatoki bat eta informazio-puntuak ezartzeko egindako eskaerari buruzkoa dela, eta puntu hori Arturo Aldecoa jaunak defendatu behar duela adierazi du. Aipatu duenez, bigarren mozioa kanon digitalari buruzkoa da, gizarte mailan oso gai garrantzitsua berau eta bi gai horiek arrazoituta dira presazkoak eta arrazoituta ekarri dira osoko bilkuraren bilera honetara eztabaidatzeko eta horiei onespena emateko, egokitzat jotzen bada.

**Arturo Aldecoa Ruiz jaunak, PPko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Aurkeztu duten mozioa presazkoa dela aipatu du eta, mozio horren helburuarekin, bere ustez, guztiak ados egongo direla, hori adierazi dutelako Batzar Nagusietan. Asmoa hau da: Leioako Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzea, tartean dauden Administrazio guztiak ados jarrita eta Lamiakoko EDAR ezartzeko proiektuarekin koordinatuta, Lamiakon hezeguneetan eta lokatzetan itsas hegaztien behatoki bat eta informazio- eta behaketa-puntuak sor dadin bultzatzeko eta, halaber, Leioako Udalak eta Foru Aldundiari eskatu dio hegaztien atsedenerako eta elikadurarako eremu horretan babes-neurriak bultzatzeko.

Aipatu du mozio hori presazkoa dela batzar-taldeak eurak, bai Euzko Alderdi Jeltzalea, baita Alderdi Sozialista ere, Batzar Nagusietan proposamenaren alde zeudelako baina lehenik Udaletan bozka zedin eskatu zuten, behin eta berriz jarri zieten epea eta hori jasota dago 2007. urteko abenduaren 21ean egindako batzordearen bileretako egunerokoan, horri onespena emateko Udaletan bozkatu beharra zegoela. Zehazki, adibidez, Euzko Alderdi Jeltzalearen bozeramaileak, Setien Agirre jaunak, honako hau esan zien eta hitzez hitz irakurri du: *“gure ustez Getxoko eta Leioako Udalak dira Batzar Nagusiei egokitzat jotzen dituzten jarduketak eskatzeko lehen urratsa eman beharko luketenak. Udal horiek Aldundiari egokitzat jotzen dituzten jarduketak eskatu ostean, gure taldeak uste du, bai Nekazaritza Sailak, baita Ingurumen Sailak ere, beharrezko koordinazioa gauzatuko zutela eta ziur gaude ez litzatekeela inolako arazorik egongo funtsean zuk proposatu duzuna gauzatzeko”*.

Adierazi du beste alderdiak, Alderdi Sozialistak, benetan horrekin, Batzar Nagusietan proposatutakoarekin eta gaur Udalera ekarri den honekin, ados egonik, zalantza bat soilik mahaigaineratu duela, nolabait, EADR proiektuak proposatutakoan, Lamiakoko Hondakin-uren Araztegian, eraginik izango ote duen. Behin eta berriz esan zen aipatu batzordearen bileran, abenduaren 21ekoan, Ministerioak aurkeztutako proiektua guztiei ona iruditu zitzaizela, argi eta garbi, bazirela zenbait zuzenketa aurkeztuta, Leioako Udalak aurkeztutakoa, esaterako, baina, funtsean, ideia oso ongi bideratuta zegoela, baina eurek Aldundiak aurrea hartzea nahi zuten eremu hori, eta argitasun terminologiko handiarekin hitz egiten ari ziren, Lamiakoko hezeguneek eta lokatzek osatutakoa da eta horrek ez du inolako eraginik EDARen. Beraz, eremu horretan Ministerioarekin lankidetzan aurrera egin daiteke, bistakoa denez, urte batzuen buruan, EDAReko lanak amaituta daudenean, mozio horrek proposatu duena ere amaituta egoteko.

Ezker Batuaren taldeak Batzar Nagusietan mozio horri aldeko botoa eman ziola esan du eta, duela bi aste edo aste eta erdi, Getxoko Udalak mozio horri berari onespena eman ziola. Getxo zen beste alde interesatua eta orain Leioa soilik geratzen da.

Udalak horri onespena ematea presazkoa dela uste dutela adierazi du, Batzar Nagusietako talde guztiek onartu dutela funtsean guztian ados daudela eta ez dagoela kontraesanik EDAR proiektuarekiko, izan ere, epe bat behar da Aldundiari aurkeztutako ekimen horretarako, logikoki, Ministerioarekin, Udalekin, EHUREkin, beste entitate batzuekin, ekologistekin –eta esan du gero banatzeko ekarri duela, nahiz eta ez duen mozio honekin lotura zuzena, EDAR aurreproiektua hobetzeko proposamen bat eta horretan informazio erabilgarria dagoela taldeen irizpidetarako, eta haren ustez, gutxienez, dokumentazio gisa interesgarria da–harremanetan egoteko, baina, edonola ere, martxan jarri beharko litzateke legealdi honetan



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

denbora egon dadin, Aldundiak lanean jarraitzen duen eta EDAR proiektua erabat osatuta dagoen bitartean, eta legealdi honen amaieran hori ongi bideratuta egon dadin eta guztiek esan ahal izan dezaten hezeguneak eta lokatzak, lokatz baliotsu horiek, horri kasu handirik egiten ez bazaio ere ibaiertzaren alboan garrantzi ekologiko handia duen eremu horrek, arrisku larriak dituztela ez badira nolabait isolatzen, ez bada horien balioa azaltzen, eta penintsulan dagoen hegaztien atsedenerako eremu garrantzitsuenetarikoa bat dela eta hegazti migratzaileentzat nahitaezko pasabidea dela eta askotan asteak ematen dituztela bertan eguraldi txarra denean, bertan jartzen direla, bertan jaten dutela eta bertan lo egiten dutela; lokatz horiek babestu egin behar dira eta lehen urratsa oso garrantzitsua da beti: Udalak kontaktuak martxan jartzea eta, nolabait, legealdi honetan, eremua jendearentzat erabat mugatuta gelditu dadila, interes naturaleko eremu gisa eta ez utzita gelditu den eta inork garrantzia ematen ez dion eremu gisa.

Horregatik uste du presazkoak direla eta hori dela eta, aldeko botoa eskatzen dutela.

**J. Alfonso López Arevalillo jaunak, PSE-EEko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Bere taldeak Alderdi Popularrak aurkeztutako mozio horren gainean duen jarrera Hirigintza Batzordean eman zituzten argudioei eustekoa dela esan du, bertan hori EDARen aurreproiektuan bertan aurreikusita dagoela dioten argudioen kontra jardun zutela eta, beraz, padura den edo ez zalantzan jarritako lokatzetan edo paduretan ez sartzeko, hasiera batean euren taldea Hirigintza Batzordean izan zuen jarrerara mugatuko da, hau da, kontrako botoa emango dute.

**Jesús Bilbao Curiel jaunak, EAJ-PNVko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Presazko izaera horren kontrako botoa emango dutela esan du, ez baitaie presazkoa iruditzen orain erreklamatzeko ingurumen mailako erreklamazioaren gaia, ez baita hori gertatzen ari eta, gaur egun, ingurumen mailako narriadura arazo larriagoa bihurtzen ari dela eta uste dute EDAR proiektua osorik iritsi arte itxaroteko unea dela, orduan ikusi ahal izateko eremu horretan gauzatuko diren ingurumen mailako bi jarduketak: lehena EDAR da, ingurumen mailako berezko jarduketa dena eta bigarrena, berriz, eremu horri emango zaion tratamendua, gaur egun, padura ez den zatian eta hor dauden lokatzetan eta, gainera, duela urte batzuk baino garbiago daudela ibaiadarraren garbiketarekin eta abarrekin eta, beraz, arazoa, gero eta larriagoa izan beharrean, konpontzen ari dela.

Bigarrenik, Ingurumen Ministerioak garatuko du eremua, hark ekarriko du aurreproiektu bat eta guztiek haren aurrean egin ahal izango dituzte alegazioak eta, beraz, ez dirudi ideia ona denik orain ezetz esatea, ezta Ingurumen Ministerioari ere, ezta Aldundiari zerbait bultzatu dezan eskatzea, aitzitik, onena Ingurumen Ministerioak zer ekartzen duen ezagutu arte itxarotzea da eta orduan ikusiko dira sorturiko interes guztiak eta Lamiakoko egoera orokorrean, bestela ea zer gertatzen den auzoarekin, udalerriarekin, bideragarritasunarekin, EDARen inguruan dagoen guztiarekin.

Aipatu du ez daudela ingurumen mailako bigarren jarduketa hori egotearen kontra, agian oso ona da eta horrela egin behar da, baina uste dute Ingurumen Ministerioak proiektua aurkeztean izango dela horretarako unea eta orduan izango dela alegazioak aurkezteko unea eta hori landu ahal izango da. Presazko mozioa gauzak landu ahal izateko dela esan du, baina, edonola ere, orain onartzen ez badira zerbait txarra gertatuko da; edonola ere, lokatzak garbitzen ari dira eta ibaiadarrak ere garbitzen ari da eta lasai egon gaitzake, gutxi gorabehera, eta denbora-tarte bat hartu beharra dago, EDAR proiektuarekin, iristen denean, zeren gaineko alegazioa egin behar den ikusi, batzordera eraman, lasai aztertu eta alegazioak Ministerioari aurkezteko.

PPko bozeramaileak esku hartu duenean alde bateko eta besteko taldeek esandakoari buruz aritu dela esan du eta, jakina, "salba ditzagun hegaztiak" edo antzeko zerbait



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

aurkezten bada, guztiek aldeko botoa emango dutela. Nola eman ezekoa horri? Baina, agian, taldeek jakin behar dute ez dela hain presazkoa, itxaron beharra dagoela, Leioa dela bere ibaiadarraren zatia errekuiperatzeko interes handiena duena, gure udalerrian ezarriko den EDAR nola gelditzen den ikusteko interes handiena duena eta hori lasai hartu beharra dagoela, ez presarekin.

Beraz, esan duenez, ekimena berez ez zaie gaizki iruditzen baina ez dute ulertzen Aldundia izan behar izatea horren burua, lehenik Ingurumen Ministerioarekin ados jarri beharko litzateke, hura baita EDAR proiektua ekarriko duena, eta eremua nola gelditzen den ikusi beharko litzateke, baina ez dute presarik ikusten inondik eta, hori dela eta, kontrako botoa emango dute.

**Daniel Herrera Torrecilla jaunak, EB-Bko bozeramaileak, honakoa adierazi du:**

Aipatu du berak, Udalak horren gaineko erabakia hartzeko autonomiaren gainean, uste duela oinarrizko zerbait dela eta, hori dela eta, uste duela zenbait aldiz aipatu dutela batzordeetan horrelako kontuetan egokia dela Udal batek gaiei buruzko iritzia ematea, esaterako, proposatu duten gaia bezalakoetan eta gero Aldundiak hura jasotzea eta ez Batzar Nagusien dirigismorik izatea Udalei konponbideak inposatuta. Baina, horri jarraiki, ez da pentsatu behar osoko bilkura honek erabat sartu behar duenik proposamena onartzera, bestela ez baitago salbaziorik edo ez baitago aukerarik hegaztien kontua konpontzeko.

Adierazi duenez, Batzordean aipatu zuten Udalera heldu ziren agirietatik ezagutzen denetik hori garatzeko aukera bat ikusten dela eta EDARen proiektuaz, zenbaitetan, existituko balitz bezala hitz egiten dela, baina kontuan hartu beharra dagoela zenbait pertsonak gezurtizat jo ditzaketela proiektua ez dutela ezagutzen esaten dutenean, baina proiektua ez dutela ezagutzen, oraindik ez dela iritsi, albisteak, hitzezko informazioak baino ez dituztela eta udan Udalera heldu zela agiria, ez dakitela gehiago. Baina badakite ez dela bateragarria hegaztien behatoki mota bat edo antzeko bat existitzea; dena den, batzordean ere esan zen logikoena eremu horretan aurreikus daitezkeen jarduketa guztiak modu globalean eta osoan gauzatzea dela, EAJKo bozeramaileak esan duen moduan, uste du kontuan hartu behar direla hegaztiak, kontuan hartu behar direla inguru horretan bizi diren pertsonak eta beste hainbat gai ere kontuan hartu behar direla barneratuta egon daitezen eta ez dira, gai horri dagokionez, inkoherenteak izan daitezkeen jarduketak proposatu behar, eta eurek, eremu hori aprobetxatzearen eta beharrezkoak diren gauza guztiak bertan sortzearen kontra ez badaude ere, ez dute uste orain denik hori erabakitzeko unea, ezta Udalbatza honen aldetik lotura bat sortzekoa ere. Proiektua iristen denean eztabaidatuko da horren gainean, pieza guztiak ongi kokatzen saiatuko dira eta aurrera joko dute, baina une honetan ez dute uste horiek kontu horiek guztiak konponduko edo arinduko dutenik eta, hori dela eta, kontrako botoa emango dute.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate-udalburu jaunak, honakoa adierazi du:**

Azkenean, malgutasunaren kontu horretan, presazko izaera azalduta gelditu dela uste du baina badaki, esan den guztiaren ondoren, kontra-erantzunerako txanda nahi izango duela Alderdi Popularraren bokalak eta, beraz, berak ez du orain hitz egingo, Arturo Aldecoaren ondoren hitz egingo duela eta zin egingo diola ez duela beste aipamen bat ekarriko duen aipamenik egitea, baizik eta ustez lasaiago utziko duten bi edo hiru gauza mahaigaineratu nahi izan dituela.

**Arturo Aldecoa Ruiz jaunak, PPko bozeramaileak, honakoa adierazi du:**

Lehenik eta behin, esandako gauzei erantzungo diela esan du, uste baitu ez daudela arazoaren benetako ezagutzan oinarrituta. Gogorarazi nahi izan du Alderdi Sozialistak padurak ote ziren zalantzak zituela eta berak Leioako Udalak berak egindako eremu horren mapa eder



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

bat duela, 1526. urtekoa, ia bost mende dituena eta eremu hori padura handi bat dela, Nerbioiren padurak. Mapen segida dauka, horiek edukitzeko ardura hartu duelako, 1780koan padurak izaten jarraitzen dute –aipatu du hori guztia udal kartografian dagoela, norbaitek jakin-mina badauka, jakin dezan- 1900. urtekoan, eremu horren osaketa orain ezagutzen dugun moduan mugatu zen, nahiz eta zenbaitek ezetz esaten duen, baina hala da, padura berde gisa ezagutzen ditugunak –berak, txikia zenean, ikusi zituela itsasoko urez beteta- eta lokatzeako eremuak ere padura izaten jarraitzen dute, kontua da mende batez Nerbioi-lbaizabal ibaiasadarraren kutsadura jasan behar izan zutela eta, logikoa den moduan, orduan lupetz beltzen zabortegia ziruditela padura baino gehiago, baina beti izan dela padura. Eta, agian, Nerbioi ibaiaren estuario-sistema osoan gelditzen den azken padura da, gainontzekoak erabat desagertu direlako eta Leioak, oraindik, padura hori izateko zorte izugarria dauka.

Logikoki, udalerriko hiri-garapenak, Lamiako auzoak, zenbait enpresa ezartzeak, bide-beharrek padura hori eta horren kontserbazioa edo errekupeazioa zenbait puntu zehatzetara mugatu dute baina EDAR Lamiakon kokatzea hasieratik aurreikusita zegoen Madrilgo zenbait gobernuren Uren Partzuergoak eta Ministerioak aitortu zuten eremua garrantzitsua zela, EDARen kokapenak zenbait aukera eman dituela paduraren eremu zehatzerako eta, hala ere, balioetsuena EDAReko lanetatik erabat kanpo dago.

Adierazi du hor dagoela aurreproiektua eta, gaizki ikusita baldin badago ere, esan daiteke erdi mailako tamainako EDAR bat dela, Galindo baino askoz ere behatoki txikiagoa, aldeetako bietan parke posible bat dagoela era hori da Ministerioaren proiektua eta nahiko ongi dago, nahiz eta PSOEn Gobernuarena den, ezin da esan gauzak gaizki egiten dituztenik, are gehiago, nahiko ongi egin dute. Udalak proiektu horren gaineko bere zuzenketa dauka eta bere arrazoiak ditu baina eremu perimetroak bat mantentzen du parkearen bi aldeetan, padura baten antzeko eremua da bat eta beste bat, berriz, hiri-parke baten antzekoa, baina bi proiektuetan oinarria lokatzak kanpoan gelditzean datza eta egoera larria izango da etorkizuneko lanen eraginez. Izan ere, esperientziak erakusten duen moduan, eta Euskal Herriko Unibertsitateak eta zenbait talde ekologistak ere aitortu dutenez, hezegune edo padura horiek ingurumen mailan duten balioetatik oso ikusgarriak ez badira ere, herri lanak daudenean nahitaez isuriak eta hondakinak jasotzen amaituko duen lekua izatea ikaragarria izango litzateke haren kontserbaziorako.

Bigarren arazo bat ere badela aipatu du eta horretan ezin izango diotela inori ezetz esan, izan ere, ez dago inolako banaketa eragingarririk hegaztiei dagokienez etorkizuneko lanetako eremuaren eta hezeguneen, hau da, milaka eta milaka hegaztik, batzuk babestutako espezieetakoak izanik, urtean bitan Europako kontinentea zeharkatzen dute eta urte osoan bertan bizi direnek lo egiten duten, atsedean hartzen duten, jaten duten eremuaren, artean. Lanen zarategatik bakarrik, lanek inguruan izango duten eraginagatik bakarrik, ekimen bat gauzatzea beharrezkoa izango litzateke. Ekimen horrek, hegaztien behatokia eta zenbait azalpen-kartel ezartzeaz gain edo, nolabait, eremuari ingurumen-itxura handiagoa eta eremuari trebakuntza-interes handiagoa emateaz gain, eta hori da Aldundiak bigarren puntuan eskatzen duena, instituzio horrek eremua babes dezala, lanek teoriarik ez baitute lokatza ukituko baina lokatzaren heriotza ekarriko baitute eta, hori dela eta, EDARen gaia proposamen horretako gaiarekin nahasteak eragin ikaragarria dauka: EDARek bere lanetako eremua dauka, EDAR, suposatzen dutenez, ingurumen mailan Bizkairako lan bikaina izango da, baina EDAR egitean eremu hori arriskuan jartzen da. Eta Euskadin dagoen esperientzia ikaragarria herri lanetako eremu perimetral guztien suntsiketa sistematikoan datza, ez soilik lokatzak, baita hezeguneak, hondartzak, dunen eremuak ere eta, beti arrazoi bera dela medio, beti esaten delako ezetz, eremu hori ez dela ukituko, ez dela beharrezkoa neurriak hartzea eta, azkenean, eremu horiek suntsitu egiten dira.

Behingoz ikasi beharra dagoela aipatu du, lokatza mantendu eta Txingudiren pareko bihur daitekeelako; bitxia da, baina Txingudiren balio ekologikoa lokatz honetakoa baino



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

txikiagoa da, babesten baldin bada, besterik ez. Erreserba naturaleko eremu bat izango litzateke udalerrriaren sarreran eta suntsitu egin daiteke “ez da ezer gertatzen, oso ongi egingo dugu, oso ordenatuak gara” esate hutsagatik. Baina lanen eta zarataren eragin hutsagatik kalte larria egiten diogu inguruari. Aldundiari –eta bera ez da Aldundiaren gobernukoa, aitzitik, oposizioan dago– utzi behar zaio gai hori landu dezan, hori onartzen duelako, arazoa ikusten duelako. Udalei, Aldundiari, EHUri eta Ministerioari utzi behar zaie, ziurrenik, beste leku batzuetako Unibertsitateekin lankidetzan, balio naturaleko eremua mantentzeko moduak eta neurriak jar ditzaten, bestela, hiru urte barru, gai horri buruz hitz egingo da berriz ere, areto honetan bertan, baina ez zerbait egin behar dela esateko, “zer demontre ez dugu egin arazo hau izateko” esateko baizik.

Aldundirako konfiantza apur bat eskatu du eta, bere alderdikoa ez izanik ere bai, Gobernuren alderdikoa izanda ere. Harengan konfiantza izateko eskatu du, bera ados dagoela gauza batean, izan ere, zerbait ongi egin liteke hemen guztiak ados jarrita baina lanak hasi baino lehen egin behar da, gero beranduegi izango baita.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate-udalburu jaunak**, honako hau adierazi du:

Arturo Aldecoa esku-hartze mardula izan duela esan du eta onartutakoa izan dela gainera, beste kasu batzuetan ez baita horrelakorik gertatzen, baina orain presazko izaera nabarmentzen ari dira eta esku-hartzea mardula izan bada ere, bigarren txanda zelako, eta ados egon edo ez egon, presazko izaera hori nabarmentzen ari dira gehiago gai horren hondoko gaia baino. Bertaratutako gainerakoei adierazi die beste esku-hartzeren bat egin nahi izanez gero, egin ahal izango dutela, baina laburrago.

**J. Alfonso López Arevalillo jaunak, PSE-Eeko bozeramaileak**, honako hau adierazi du:

Agian, esperientzia faltagatik, ez duela bere burua behar bezala adierazi esan du eta gai horren gainean duen jarrera aipatu du baina argi utzi nahi du gai hori presazko izaeraz aztertzearekin ados daudela.

**Jesús Bilbao Curiel jaunak, EAJ-PNVko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Arturo Aldecoa ekologista dela esan du eta gozamen hutsa dela lokatzen eta gainerakoen gaiari buruz hitz egitea eta bertan padurak izan direla dioenean entzutea eta planoak nola erakusten dituen ikustea, herrian bada gauza interesgarri ugari ezagutzen ez duen jende ugari, Gobela ibai artifiziala dela, ez zihoala hortik, Gobela ibaia “bolaren” hondartzara zihoala eta hor, aitzitik, ubidearen kontra doala, gorantz, noizbait desbideratu egin zelako, eta horrek ez du esan nahi artifiziala izanagatik ere ez dela zaindu behar, baina, halaber, esan nahi dio, gaur egun, lursail berdean, ez ibaiadarraren lokatzetan, ingurumen mailan, kalamitate handia dagoela, ez dagoela ez padurarik, ez ezer; lokatza hor dago eta babestu egin behar da baina ez zaio kalte egiten ari hor dagoen zerbaiti, baizik eta hori inork ez duela zaindu denbora oso luzean eta, tamalez, oso gaizki dago.

Presazko izaera horren gainean, aipatu du, berriz ere esango duela Arturo Aldecoa esandako guztia posiblea dela, baina eurek diotenez, lokatzaren bigarren errekonstruzio horrez gain, ingurumen mailako errekonstruzio horrez gain, faktore gehiago ere badaudela eta horiek ikusi arte itxaron nahi dutela, PPko bozeramaileak esandako zerbait ez baita erabat zehatza, hau da, Udalak araztegiaren proiektuari buruz hitz egin duela esan duenean, aurretiazko kontsultak izan baitziren eta proiektua orain baitator, eta orain esaten dute proiektua iristen denean hitz egingo dutela, ikusiko dutela konponbide osoa zein den, hori barne; baina ez du uste presazkoa denik orain, ez baita inolako ingurumen-narriadurarik gertatzen ari eta, are gehiago, kontrakoa ari



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

da gertatzen, ibaiadarra garbitzen ari baita eta, hori dela eta, ez diote horri presazko izaerarik ikusten.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate-udalburu jaunak**, honako hau adierazi du:

Konfiantza konfiantzaren truke lortzen ahaleginduko dela esan du, albiste txar bat eta albiste on bat daudela esaten denean esaten den bezala: presazko izaerari kontrako botoa emango diotela da albiste txarra eta ona, berriz, bere ustez, presazko izaera horri kontrako botoa zergatik emango zaion. Eta terminologikoki ere mugatze aldera, aipatu du berak bereizten duela eta ez dela gai horretan aditua, ez dela ez ingurumen mailako teknikaria, ez biologoa, ez antzeko beste ezer ere eta, gainera, oinarrizkoa iruditzen zaion beste jarrera baten berri ere eman du, horrekin amaitzeko asmoa zuela baina zabaldu egingo duela, izan ere, bertako landarediak eta faunak oso kezkatuta daukate baina askoz ere kezka handiagoa sortzen diote Lamiakoko bizilagunek eta dituzten kezkek beste edozerk baino eta gauza bat bestearekin bateragarria ez dela aipatu du berriz ere.

Aipatu duenez, PPko bozeramaileak dokumentazio bat aurkeztu du eta horren gainean gauza batzuk esan nahiko lituzkeela; izan ere, hainbat gauza izan dira denboraren joanean eta, definizio terminologikoari dagokionez, atzera jotzen duela bere ustez gauza bat, Lamiakoko kai gisa ezagutu izan dena, portuko errepidearen alboan dagoena eta ibaiadarraren barnean dagoena eta berak lokatzak ikusten dituela, paduraz hitz egiterakoan bera galdu egiten dela, ez daki barnetik, kanpotik, azpitik edo nondik hitz egiten den. Ikusiz, argi eta garbi, bi eremu bereizten ditu: kai gisa ezaguna dena eta lokatz gisa ezaguna dena. Kai gisa ezagutzen dena padura izan zen eta PPko bozeramaileak inolako ofizialtasunik ez duen dokumentazioa aurkeztu du Juan Angel Aretxabaletak bere garaian egin baitzuen eta Udalean beti apur bat arinki maneiatu diren planoak baitira, inolako ofizialtasunik gabe; hori dela eta, padura izan zen, kai izan zen eta betegarria da. Gainera, zaldiak daude bertan ijito familia batekin eta ongi aprobetxatutako lursail horretaz baliatzen ari dira. Baina hori da gaur egun eremu horretan dagoena. Eremu horretan padura-izaera ere aldarrika daiteke baina, jakina, Santimamiñeko kobazuloak ere itsaso izan ziren noizbait eta, pentsa, norbaitek orain hori errekuperatu nahi izango balu, pentsa Kortezubik hondartza izan nahi duela esango balu. Zergatik ez? Itsaso izan zen eta Kortezubik aipatu du prentsan irakurri duelako Alderdi Popularrarekin izandako gutun gurutzaketa; baina, jakina, Santimamiñeko kobazuloak itsaso izan ziren eta garai hartara jotzen badugu, edozein gauza aldarrikatu ahal izango da orduan.

Azken batean, bere ustez, oraintxe bertan ez da presazkoa, arinegi ibiltzea izango bailitzateke, gaur egun Udalaren esku dagoen dokumentazioaren inguruan, talde ekologistek eta Bizilagunen Elkartek berak daukaten dokumentazio bera izanik, eta egon ahal izan duten talde ekologistekin hitz egin ondoren, haiek aitortu diote helburua ez dela ezta arlo honetan dagoen ekosistema mantentzea ere, garai batean izan zena berreskuratzea baizik, helburua ez da dagoen ekosistema mantentzea, hau da, honek balio oso txikia daukala egia da, baina garai batean izandakoa berreskuratu dezakegu. Hori da eskala; padura, kaia, betegarria, garai batean izan zena berreskuratzea. Horretan datza errealitatea.

Aipatu duenez, dokumentazio horretan eta erakunde eskudunarekin, hau da, Ministerioarekin, izandako elkarrizketetan, berak uste du eurek askotariko informazioa jaso dutela eta aurreproiektua oraindik ezagutzen ez badute ere, aurreproiektu izaten ari diren aurretiazko ikerketetan, horiek bai, horiek ezagutzen direla, bi agiri ezagutzen baitira, aurretiazko proiektu bat eta ingurumen mailako eraginari buruzko ikerketa, eta egia dela lokatzak kanpoan gelditzen direla, baina agian Ministerioak lokatz horiek barne hartuko dituen proiektu bat bideratuko du, hori ere galdetu baitiote eta hori ere, printzipioz, aintzat hartzen ari diren aukera bat baita. Araztegia txikiagoa izategatik libre geratzen diren lurzoruei dagokienez, lurzoru horien



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

aprobetxamendurako aukera bat izan daiteke eta, agian, arriskutsua izan daiteke eremu hori etorkizunean hipotekatu egingo duen zerbait egin daitekeelako.

Guztiak ados egongo direla esan du, hala adierazi dutelako, berezko ingurumen-operazio bat dela, EDAR den moduan, eta eremuaren ingurumen-hobekuntzarako jarduketa batekin datorrela eta ingurumen-eremu hori, nolabait, izan zena errekuperatzen saiatu daitekeela esaterakoan. Eta, are gehiago, ados jar daitezke lokatzak barne hartzeko moduari edo lokatzak barne hartu ahal izateko moduari dagokionez; gaur egun Ministerioak ez du hori egiten. Eta Udala bera ere ados egongo da, gainera, eremu bat, ibai-parke bat edo ingurumen-errekuperazioko eremu bat sortzen baldin bada, hori sortzen baldin bada, parke bat izan behar duela esaterakoan, ez dakiela ohikotik zenbat izango duen parke horrek, baina hiri-parke bat izan dadila eta, bistakoa denez, eremu horren mantenuaz ez Leioako Udalak arduratu behar izatea. Berak uste du mantenuerako hiru aukera posible daudela: Ministerioa bera –nahiz eta ez duen ikusten hori egiten duenik–, Uren Partzuergoa edo Foru Aldundia eta, horretan, berak ez du inolako arazorik izango, ezta bere taldeak ere, Aldundiari Aldundia izan dadila eskatzeko, alegia, uste baitu Udalak ez duela horretaz arduratu behar.

Jarraian aipatu du hilabete gutxi batzuetan Ministerioaren proiektu bat jaso ahal izateko zain daudela uste duela eta proiektu horretan ikusiko dela lokatzak barneratuta dauden edo ez eta nola egin behar den eta zein ingurumen-proposamen eta zein parke proposamen dagoen eta, orduan, berak esango luke hori errekuperatu ahal izateko unea izan daitekeela eta Aldundiari esan ahal izango liokeela, “aizue, zuek har ezazue ardura eta zuek egin ezazue hemen planteatzen ari zareten hori”.

Hori alde ona dela esan du eta bestea alde txarra zela, izan ere, berak uste du presazko izaera horri ezezko botoa eman behar zaiola, nahiz eta onartu behar den gero, proiektua ikusi orduko, eta hurrengo hilabeteetan ikusiko dela kontuan hartuta, Aldundiari aurkeztu behar zaiola eta, gainera, berak uste du horretan arituko direla, izan ere, hizketaldiren bat izango zuen, bai Ministerioarekin, bai Partzuergoarekin, bai dena delakoarekin, eta, hori dela eta, konfiantza eskaera, konfiantza eskaeraren truke. Bere ustez, bere taldeari hilabete bat gehiago falta zaio eremu horretarako benetan planteatzen denari buruzko iritzi osoagoa izateko, eta, gainera, baietz uste du, hegaztiak garrantzitsuak direla eta guztiak ados daudela garrantzitsuena eremu horretako bizilagunak direla esaterakoan, eta uste du mundu guztiak ikusi beharra daukala EDAR proiektu horretan nola barneratuko den, ingurumen-hobekuntza, bideragarritasuna, jarduketa ekonomikoen eremua, nola bizi daiteken horrekin eta, horri dagokionez ere Udalaren Osoko Bilkura gisa iritzi bat izatea.

Alkate jaunak premiari buruzko bozketa egiteko agindu du.

## **LEHENENGO PRESAZKO MOZIOAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da.

**Aldeko zortzi boto**, PSE-EEko bost zinegotzienak eta PPko hiru zinegotzienak; eta **kontrako hamabi boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotziena. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak gehiengoz erabaki du PPK Lamiakoko padura eta lokatzetan itsas hegaztien behatokia eta behaketa eta informazio guneak sortzeari buruz aurkeztu duen lehenengo mozioaren premia **baztertzea**, berau eztabaidatu eta bozkatu behar ez dela erabakiz.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## **ALDERDI POPULARRAK AURKEZTU DUEN BIGARREN MOZIOA, KANON DIGITAL BERRIAK INDARREAN SARTZEARI BURUZKOA.**

**XABIER OLABARRIETA ARNAIZ** jaunak, **LEIOAKO UDALEKO ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAREN BOZERAMAILEAK** honako erabaki-proposamena aurkeztu du Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 97.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, **Osoko Bilkura** honetan eztabaidatzeko:

### **MOZIOA**

Jabetza Intelektualari buruzko Legearen (JIL) 25. artikuluan sortutako Kanon Digital berriak argitaratu eta indarrean sartuko direla-eta, neurri horrek erabiltzaile eta kontsumitzaile guztiei (denak herritarrak direla) ageriko kaltea egiten diela ikusita eta ondokoak kontuan hartuta,

1.- Kanon horrek HERRITAR GUZTIEI zerga ezartzen die, bereizi gabe, jabetza intelektualari lotutako obra baten kopia egin dezaketela susmatze hutsagatik.

2.- Kanon horrek teknologiaren edozein erabiltzaileri (epaitegiak, ikasleak, argazkilariak eta softwarearen fabrikatzaileak, besteak beste) ezartzen dio zerga, bereizi gabe. Halaber, eskolako materialari eta gure enpresek, merkatariek eta profesionalak lan egiteko derrigorrean behar dituzten elementuei ezartzen zaie eta gailu elektronikoak erabiltzen dituzten jarduera guztietara hedatzen da.

Udal honek ere eragina jasoko du, gure auzokoek hutsaren truke jasan behar duten beste karga bat ekarrita.

3.- Zerga orokor hori pertsona pribatu zehatz batzuen aldekoa da, Estatuak horren gainean inolako kontrolik gauzatzen ez duela, eta produktu teknologikoak % 40 gehienez garestitzen ditu. Kanonak ez dauka zerikusirik pirateriarekin, nahiz eta kudeaketa erakundeek bi kontzeptuak nahastu nahi izan dituzten propos.

4.- Kanon horrek dirua biltzen du, baita kudeaketa erakundeek ordezkatzeko ez dituzten egile eta sortzaileen obregatik ere, horiek bildutako diruaren banaketan esku hartzen ez dutela.

Ohiz kanpoko egoera hori ikusita, herritarrak, enpresak, kultur, kirol eta erabiltzaileen defentsako elkarteak, institutuak, udalak, sindikatuak eta patronalak, aukera politikoak, kredoa, adina edo nazionalitatea bereizi gabe, **TODOS CONTRA EL CANON** plataforman elkartu dira.

Arazoi horiek guztiak direla eta, hurrengo ERABAKIA hartzea proposatu da:

1. Leioako Udalak, bertoko auzoko guztien ordezkaria den aldetik, bat egiten du **TODOS CONTRA EL CANON PLATAFORMA**arekin, herritar guztiak defendatzeko lan egiten dutenen alde agertuta, eta Gobernuari eskatu dio JILen 25. artikulua indargabetzeko.

Leioan, 2008ko urtarrilaren 31n.

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, PPko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Aurkeztu duten bigarren presazko mozioa, aurretik aipatu duen moduan, kanon digitalaren gainekoa dela esan du eta bertan puntu bakarra proposatu du: "Guztiok kanonaren kontra" plataformarekin bat egitea. Plataforma horretan hainbat elkarte, kontsumitzaileen zenbait elkarte garrantzitsu daude barneratuta eta bozeramaile-plataforma edo talde-plataforma bitartez kanon digital horren ezabaketa babesten dute eta, bereziki, plataforma hori dago ezabaketa horren atzean. Berriz esango du. Mozio horretan Udalak plataforma horrekiko atxikimendua adieraztea nahi da eta, gainera, Gobernu Zentralari, Alderdi Sozialistaren Gobernuari eskatzea Jabetza Intelektualaren Legearen 25. artikulua indargabetzeari ekin diezaion, hori baita kanon digital horren jatorria.

Aipatu duenez, presazko izaera du neurri horrek, Legea indarrean jartzeak eta kanon digital hori aplikatzeak gizarte mailan eragin nabaria duelako eta kontsumitzaileek ohiko bizitzan erabiltzen dituzten aparailu ekonomiko askotan eragina duelako: grabagailuak, inprimagailuak, edonolako euskarri elektronikoak, eta karga ekonomiko handia du horrek produktu horien azken



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

salneurrietan. Hori dela eta, presazko izaeraz jardun beharra daukatela uste dute Gobernuari eskatzeko artikulu hori ken dezan eta, horri dagokionez, uste dute Udalak ere bere iritzia eman behar duela, zenbat eta lehenago, hobe, eta, horregatik, mozio hori ekarri dutela gaur eta presazko behar horrekin edo presazko ezaugarri horrekin, gainera.

**Jesús Bilbao Curiel jaunak, EAJ-PNVko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Eurek presazko izaera horri ezezko botoa eman behar diotela esan du, izan ere, gaur arratsaldean mozio bat iritsi zaie Alderdi Popularraren mozio bat eta mozio horrek ondorengo eskatzen du: *“Leioako Udalak, bertako herritar guztien ordezkari gisa, “Guztiok kanonaren kontra” plataforma horrekiko atxikimendua adierazi nahi du eta babestu egingo ditu herritar guztiak defendatzen dihardutenak. Gainera, Madrilgo Gobernuari eskatuko dio Jabetza Intelektualaren Legearen 25. artikulua indargabetzeari ekin diezaion”*.

Esan duenez, ez zaie Leioarentzat zerbait presazkoa iruditzen, lehenik eta behin, ez delako “Guztiok kanonaren kontra” plataformako inor agertu, ez dakitelako nortzuk diren. Plataforma batek Udalak nolabaiteko iritzia eman dezan nahi badu, etorri egin beharko luke, nortzuk diren azaltzen duen agiri bat ekarri beharko luke eta, gainera, Udal eskumeneko gaia ez denez, Madrilgo Gobernuaren berezko zerbait dela ikusten baita, taldeek haien Udal programetan ez dute Jabetza Intelektualaren Lege horren gaineko jarrera bat adierazi.

Horrek eztabaida oso interesgarria sor dezakeela adierazi du baina oraindik ez dakiela lekua hau den, bere ustez, Madrilgo Parlamentuan egin beharko bailitzateke, Gobernuan den alderdiaren kontrako eta bestearen, oposizioaren, eztabaida baita. Eztabaida dezatela haiek han bertan dauden beste taldeekin, baina eztabaida hori Udal honetara ekartzea ez da inondik inora ere presazkoa, interesgarria? agian bai, baina orain, PPko bozeramailea eskatzen ari dena, eta, azken batean mozioak dakarrena hauxe da: *“Leioako Udalak, bertako herritar guztien ordezkari gisa, “Guztiok kanonaren kontra” plataforma horrekiko atxikimendua adierazi nahi du...”* eta berak uste du Leioako herritar bakar bat ere ez dagoela Madrilen hori aldatzeko zain, agian nazkatuta daude cd birjin bat erosten dutenean kanon bat kobratzen ari zaizkielako edo kobratuko dietelako eta abar, baina ez zaie presazkoa iruditzen eta, hori dela eta, ezezko botoa emango dute, gaian sakon sartu gabe.

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, PPko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Euzko Alderdi Jeltzalearen jarrerari labur erantzungo diola esan du. Bere ustez, Gobernu-taldeak jakin egin beharko luke “Guztiok kanonaren kontra” plataforma horretan nor dagoen. Leioako Gobernu-taldeak ez badaki plataforma horren atzetik nor dagoen, gizarte mailako arazoan edo herritarrengan eragina duten arazoan jakinaren gainean ez dagoela uste dute eta hori herritarrengan eragin garbia duen arazo bat da, herritarren sakelara eragina duen arazoa eta, orain, plataforma horren atzean nor dagoen ez dakitela esatea edo mozio horren berri gaur bertan izan dutela esatea ez zaie, benetan, pisuzko arrazoia iruditzen presazko izaera horri edo eztabaidari eta mozio hori aztertzeari uko egiteko. Gai hori kalean dago, gai horrek egunerokotasuna dauka eta Gobernuari eskaera egitearen kontra edo ados egon liteke eta, are gehiago, Madrilgo Gobernu Madrilgo Komunitateko Gobernu izango da baina mozio horretan aipaturiko Gobernu, bistakoa denez, Gobernu Zentrala da, Espainiako Gobernu eta, horri dagokionez, ez zaizkie arrazoi nahikoak iruditzen presazko izaera horri uko egiteko, gai horren funtsarekin ados edo horren kontra egon liteke, baina presazko gaia dela ukatzea edo presazko gaia ez dela esatea edo mozio horretan planteaturiko gaiak ez direla ezagutzen aipatzea ez zaie pisuzko arrazoia iruditzen.

Eurek uste dute, logikoki, presazko izaerako mozio gisa onar zitekeen mozio bat zela eta Osoko Bilkura honen bileran eztabaidatu zitekeela, kalean dagoen gaia baita, egunerokotasuna baitu eta ez baitu eraginik gai handietan, eguneroko gaiak dira, sakelara eragina duen gaia da, izan ere, cassette bat edo cd bat edo dvd bat erostera zoazenean, kanon



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

digitala ari zaizkizu kobratzen eta arazo horrek guztiengan du eragina eta uste dute Udalak berehala egin behar duela zerbait edo berehala agertu beharko lukeela bere iritzia gai horren gainean. Presazko izaera horri uko egitea ez zaie erantzukizunezko jarrera iruditzen eta, are gutxiago, aipatu diren arrazoiak aipatuta.

**Jesús Bilbao Curiel jaunak, EAJ-PNVko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:

Dagoeneko gertatzen ari dela esan du eta cd birjin bat eta abar erosterakoan kanona kobratzea bidezkoa edo bidegabea izan daitekeela, baina hori gaiaren funtsean sartzea dela eta hor ez direla sartuko. Presazkoa den edo ez den eztabaidatu da eta PPko bozeramaileak esan dio gezurra dirudiela Gobernu-taldeak ez jakitea “Guztiok kanonaren kontra” plataforma horren atzean nor dagoen eta Gobernu-taldeko kideek hori badakiten edo ez badakiela; baina badakiela ez dutela hori aztertu, ezta Batzordean ere, Leioako arazoez arduratu baitira eta ez baitute plataforma horren gaia aztertu. Zergatik? Ez delako udalerrri honi dagokion gaia, beste gai batzuegatik daude arduratuta: mundu mailako politikarekiko kezka daukate, munduko bakearekiko kezka, eta abar.

Gaineratu duenez, PPko bozeramaileak esan du eurek ez dituztela ezagutzen Leioako herritarrengan eragina daukaten arazoak eta berak kontrakoa uste du; bere ustez, aurreko mozioa ez zaio oso presazkoa iruditu baina oso interesgarria iruditu zaio Leioako herritarrentzat eta honetan, berriz, interesetan nahastu dena PPren taldea izan da, izan ere, bere ustez, herritarrek ez dute nahi Udalean horrelako gaiak aztertzea, euren partez inork aztertuko ez dituen gaiak azter daitezen nahi dute. Madrilen ez dituzte Udaleko arazoak aztertuko eta, hemen, behar ez diren gauzekin denbora galtzen baldin badute, agian despistatu egingo dira eta, hori dela eta, ezezko botoa emango diote presazko izaera horri, ez baitaie presazko arazoa iruditzen. Azken batean, inork ez du eztabaidaren funtsean sartu nahi, bozkatzen den lehenbiziko gauza presazko izaera hori baita eta horri ezezkoa emango diote.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate-udalburu jaunak**, honakoa adierazi du:

Kasu honetan, presazko izaera horrez gain, eskumen arazo bat dago, hau da, Tokiko Erregimenaren Oinarrien Legeak Udalarenak diren eskumenen eta erantzukizunen zerrenda bat dauka ezarrita eta, Udal mailakoak diren eskumenen eta erantzukizunen zerrenda horretatik kanpo, askoz ere gehiago gauzatzen dira, baina ez dira guztiak gauzatzen eta, gaineratu du, EAJ-PNVko bozeramaileak esan duenari dagokionez, eurei udalerrian gertatzen diren arazoek gaineko kezka izatea dagokiela, eta, horien gainean, konponbide bat izan dezakete, gainera. Hori, azken batean, mozio bat besterik ez da, erabaki bat da, baina Udalak ez dauka inolako gaitasunik horri dagokionez erabaki bat hartzeko eta, hori dela eta, bere ustez, ez da presazkoa, ez da Udalaren eskumenekoa eta PPko bozeramaileari eskatu nahi dio Leioako herritarren kezken gaineko termometro oso ona dela idatziak eta telefono-deiak aztertzea eta gai horren gainekorik ez dela izan, ez idatzirik, ezta deirik ere, agian beste instituzio batzuetan izan dira, baina hemen ez, herritarrek bai baitakite hemen ez dela horretarako erantzunik eta, beraz, denbora galtzea dela iruditzen zaie.

**J. Alfonso López Arevalillo jaunak, PSE-EEko bozeramaileak**, honako hau adierazi du:

Soil-soilik Udalbatza guztiaren aurrean adierazi nahi du aldeko botoa emango diola presazko tratamenduari baina, ulertuko duten moduan, ezkerak, nolabait, bere burua zigortzen du eta, beraz, baiezko botoa emango diote mozioaren presazko izaera horri baina, bistakoa denez, kanonaren kontrako plataforma horren atzean nortzuk dauden badakite baina Madrilen demokratikoki hautatutako Gobernu horren atzean nortzuk dauden ere badakite eta hori bertan atzeratu beharko litzateke. Beraz, eztabaida antzuetan sartzea da eta gogorarazi nahi dio



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Udalbatza guztiari haren aurreko bozeramailearen, Jose Manuel Toledoren, hutsa sumatzen hasi dela, haren borondatea eta borroka antzuetatik etengabe ihes egitea, eta ez daki zein mailaraino taldeen koherentziak bihurtzen duen egun hau Jose Manuelen agurraren egun gisa oroit daitekeen eguna eta talde horiek lokatzetan sartu direla uste du, ez daki paduretan izan den edo beste gairen batean. Beraz, amaitzeko esan nahi du, gero galderetan berriz har daitekeen gai garrantzitsuren bat dagoela uste duenez, Leioan egoeraren bat proposatu nahi dioten herritarrak badaudela eta, beraz, gai horrekin amaitzeko, presazko izaera horri baiezkoa emango diola aipatu du, baina, halaber, gai horren gainean duen jarrera ere oso argi dagoela ere bai.

**Daniel Herrera Torrecilla jaunak, EB-Bko bozeramaileak**, honako hau adierazi du:

Bere ustez, Udalbatza honetan herritarren intereserako gai asko aztertzen direla esan du, gai garrantzitsuak, presazkoak eta, askotan luzeak diruditen arren, izan behar dituzten prozedurei jarraitzen dietela, horrek horrela izan behar duela eta orain esku artean dutenari ezezko botoa emateak ez duela esan nahi bertan dauden guztiei, hainbat alderdi politikokoak izanik, gai hori berdin zaiela; kontua da agian dibertsifikatu egiten direla haien jarduketa-arloak eta zenbait gai eremu batzuetara daramatela eta beste batzuk, berriz, beste batzuetara eta, orduan, herritarren interesen defentsan kontsekuente bakar gisa agertzea baldin bada nahi dutena, bada, norberak egin dezala politika nahi duen moduan, baina hori ez da arrazoia; eurek herritarren eskubideak defendatzen dituzte baina, batzuetan, Udalean defendatzen dituzte, beste batzuetan Eusko Jaurlaritzan eta beste batzuetan, Madrilgo Parlamentuan eta horrek ez du esan nahi gaia ez dela euren interesekoa, nahiz eta hemen uko egin dioten mozioaren presazko izaera horri.

Alkate jaunak premiari buruzko bozketa egiteko agindu du.

## **BIGARREN PRESAZKO MOZIOAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da.

**Aldeko zortzi boto**, PSE-EEko bost zinegotzienak eta PPko hiru zinegotzienak; eta **kontrako hamabi boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotziena. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak gehiengoz erabaki du PPK kanon digital berriak indarrean sartzeari buruz aurkeztu duen bigarren mozioaren premia **baztertzea**, berau eztabaidatu eta bozkatu behar ez dela erabakiz.

## **ALDERDI POPULARRAK AURKEZTU DUEN HIRUGARREN MOZIOA, UPV/EHU-REN CAMPUSEAN GERTATUTAKOARI BURUZKOA.-**

UPV/EHUren gure udalerriko Campusean 2008ko urtarrilaren 30ean gertatutakoa (unibertsitateko irakasleen klaustroak Areto Nagusian bilera egitea indarkeriaz galarazten saiatu zela) ikusita, gure taldeak:

1.- gertaera horiek, askatasuna eta unibertsitateko bizitzaren garapen arrunta mugatu nahi dituztenak, kementsu gaitzetsi ditu.

2.- Unibertsitate Elkarteari, eta kasu zehatz honetan, Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako Campusari laguntza eta elkertasun osoak helarazi nahi dizkio.

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, PPko bozeramaileak**, honakoa adierazi du:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Aipatu duenez, atzo, 2008. urteko urtarrilaren 30ean, gertakari larri batzuk izan zirela Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako Campusean eta, indarkeriaz, Areto Nagusian unibertsitate-klaustroa egitea galarazi nahi izan zen; abenduan antzeko gertakari larri batzuk ere izan ziren eta, horri dagokionez, soil-soilik uste dute Udal honek edo, behintzat, euren taldeak, gertakari horien gaitzespen sutsua adierazi nahi duela, askatasuna eta, kasu honetan, unibertsitateko bizitza behar bezala gauzatzea eragotzi nahi duten indarkeriazko ekintza horien gaitzespina eta, halaber, Komunitate Unibertsitarioari bere babes eta elkartasun osoa adierazi nahi die, kasu zehatz honetan, Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako Campusari.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate-udalburu jaunak** honakoa adierazi du:

Alderdi Popularrak planteatutakoarekin ados dagoela esan du eta, hori dela eta, Euskal herriko Unibertsitateko Leioako Campusari Udal honen babes eta elkartasuna adieraziko zaio.

Jarraian bozkatzeko ipini da. Hona hemen premiazko mozioaren bozketaren emaitza:

### **PRESAZKO MOZIOAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, aho batez, gai horren **premia onestea erabaki du**, eta jarraian gai horri buruzko eztabaida eta bozketa egin da. Udalaren osoko bilkurak **aho batez** erabaki du Alderdi Popularrak UPV/EHUren Campusean gertatutakoari buruz aurkeztu duen mozioa onestea.

### **7.- ESKAERAK ETA GALDERAK**

**J. Alfonso López Arevalillo jaunak, PSE-EEko bozeramaileak**, honako hau adierazi du:

Eskaeren eta galderen atalean daudenez, aipatu du Etxerako Laguntza zerbitzuko langileak daudela eta idatzi bat aurkeztu dutela baina osoko Bilkura honen bileran ez daki zein arrazoiengatik ezin izango dutela esku hartu argudiatu dela eta Gobernu Batzordeak gai hori dagokion aktan zergatik eta nola barneratu behar den azaltzea gustatuko litzaioke.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate-udalburu jaunak** honakoa adierazi du:

Galdera egokia dela esan du eta, gainera, berak hitz egin zuela langileen ordezkariarekin horren gainean eta, gainera, aurretik, gaur arratsaldean ere hitz egin duela, telefonoz deitu diolako enpresaren ordezkari sindikal batek eta gaur hemen egotearen helburua zein den azaldu diola. Osoko Bilkurak onetsitako zenbait funtzionamendu-arau dituela azaldu dio eta arau horiek talde guztiek aho batez onetsi zituztela eta, talde guztiek aho batez esatean, horiek onetsi ziren urtea kontuan hartuta, Euzko Alderdi Jeltzalearen, Alderdi Sozialistaren, Alderdi popularraren, Euskal Herritarroken eta Ezker Batuaren botoekin onetsi zirela aipatu nahi du, hau da, une horretan Udalean ordezkartza zuten bost alderdiek onetsi zutela eta, beraz, Oso Bilkuraren beraren funtzionamendu-araudi bat izan zela. Talde guztiek onetsitako araudi horretan jasota dagoenez, eguneko gai-zerrendan gai bat baldin badago eta publikoko norbaitek esku hartu nahi baldin badu, bost minutu izango dituela eguneko gai-zerrendan dagoen puntu horretan



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

egiteko. Puntua eguneko gai-zerrendan ez baldin badago, Osoko Bilkuraren bilera amaitzean eta abisatuta, nolabaiteko aurrerapenarekin esku hartzeko eskaera eginda eta hori idatziz aurkeztuta, publikoko norbaitek ozen irakurri ahal izango luke orain eurek alderdi politikoetako bozeramaileei aurkeztukoa eta, beraz, hori horrela egin izan balitz, Osoko Bilkuraren araudiak aurkeztutakoa irakurtzeko aukera emango lieke eta langileen ordezkariarekin hitz egin du eta esan dio interpretazio hedagarria egin dezaketela baina ozen irakurtzeko aukera besterik ez lukete irabaziko, eta aukera hori eman zaie.

Horren ondorioz, eta ordezkari sindikalari arratsaldeko bostetan eta Osoko Bilkuraren bilera hasi baino minutu batzuk lehenago esan dion moduan, esku hartu ahal izateko inolako arazorik ez dagoela adierazi dio baina Osoko Bilkuraren araudian ezarritako moduan egin beharra dagoela, ez horrela.

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, PPko bozeramaileak**, honako hau adierazi du:

Aurkeztutako idatzia jasotzat eman dutela esan du eta, espero den moduan, arretaz irakurriko dutela eta sortutako problematikari adi egongo zaizkiola.

Eta gaueko zortziak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.  
ALKATEA

IDAZKARIA,